

Arrasate

P R E S S

1999ko
irailak 3
461. zenb.



Zaitegi, heriotzaren 20. urteurrenean

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • **ORAIN ETA HEMEN:** BATZORDE BERRIAK UDALEAN
EUREN IKUSPUNTUTIK: PEDRO LASAGABASTER • **KIROLAK:** ARRASATE SARIA

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU DK. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetari). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarrí etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Opor ostea

Aurpegi triste asko ikusi dut aurtengo opor ostean. Urteoro bezala, abuztua amaituz joan den eran Portaloia animatuz joan da, San Inazio osteko oporrei ere ostea iritsi zaien seinale. Baina aurten, bekoki ilunagoak somatu ditut aurrekoetan baino. Edo betiko martxari ekiteko gogo eskasagoa, nahiago baduzue.

Eta ez dut horretarako arrazoi garbirik aurkitzen. Herria behintzat ondo zaindu dizuegu. Pilotalekua aurrera doa, eta itxura ona ari da hartzen. Ikusi duzue zelako teilatua? Kontzezinoko lanak ere amaierara hurbildu dira, eta Garibai kalearen jarraipen dotoreak San Andres auzoa erdiragotu egingo du laster. Musakolako industrialdea ospitale inguruarekin lotuko duen oinezkoen zubia, berriz,



Mikel Irizar

“Itzuli beharra trantze gaiztoa bazen, unerik txarrena igaro duzue dagoeneko”

hutsaren faltan dago. Postura egingo nuke erdialdetik Eroskira edo kiroldegira joateko ohiturak aldatzen dituela! Zerrajerako orubearen kontua nahiko argitu denez, han etxebizitza lortzeko zerrendak luzatzen hasi dira. Orube horretan egiten denak guztiz markatuko du herriaren bilakaera. Ea ondo egiten den! Eta azkenik, herriko lorategiak ondo politak daude, abuztua oro har siku samarra izan bada ere.

Ez dirudi, beraz, zuen tristura hemen aurkitu duzuenak eragindakoa denik. Izandako tokian utzi duzuen izan daiteke hain goibel agertzearen kausante. Edo agian gauza handirik egin gabe egoteak berak eman dizue poza eta mugitzen hasi beharrak pena. Bakoitzak jakingo du berea!

Animatzeko balio baleza, pentsa ezazue

oporretako hilabetea hain atsegina dela hilabete bakarrak delako, urteko beste hilabeteetan lana egin izanak ematen digula atsedenez gozatzeko proportzioa. Eta gogoratu oporretako parajeak ederrak izan badira eta bizimodua gustagarria, urtean zehar bizi garen inguru hau ere ez dela makala edo gure ohiko bizimodua pena emateko modukoa.

Behar bada, berezia, nabarmena eta ezohikoa horrenbeste miresten dituen gizarte honek ez digu erakusten txikia, arrunta eta egunerokoa behar bezala maitatzen. Agian, emozio handien danbatoak ez entzuteraino estaltzen digu lilura umilen taupada lasaia. Hori horrela balitz, ez genuke triste egon behar oporrak amaitu direlako, xumeaz gozatzeko gaitasuna galtzen ari garelako baizik.

Edozein kasutan, ez larritu. Opor osteko tristurak ere izango du bere oste lasaia, itzuli beharra trantze gaiztoa baldin bazen, unerik txarrena igaro duzue dagoeneko. Animo, beraz, eta argitu kopeta. Goizero sortuz bizitza ere hortxe dago eta!

“Orain urte batzuk egin zen bezala, plan bat egin beharko genuke etorkizuneko Arrasate zein den berdefinitzen joan gaitezen”.

Xabier Zubizarreta

3

alkateorde izango ditu Arrasateko Udalak

Lehen alkateordea Ino Galparsoro izango da, alkatearen alderdi berekoa (EH). Bigarrena Itsaso Garai (EAJ) eta hirugarrena Jose Mari Urizar “Ametzu” (EA). Azken bi hauek, alkatea bezala, liberatu egingo dira, egun osoz. Beraien soldatak Arrasateko Udalak ordainduko ditu, seguerenik.

ITURRI ONETIK

Argentinatik, maitasunez

Nikasio Uribarren aramaioarra gazterik joan zen Argentinara, gerra garaian, Arrasatetik pasata. Gaur egun, 65 bat urte dituela, Villa Maria izeneko hirian (115.000 bizilagun) bizi da, Cordobako probintzian.

Enpresa gizona da eta Villa Mariako euskaldunen alkate. Euskaldun petoa, kezkatu dago euskara galtzen ari delako euskaldunen seme-alaben artean. Euskal Herria eta Arrasate ditu bihotzean. Kooperatibak miresten ditu. Horregatik bidali zuen semea gurera kooperatibak aztertzea eta horregatik eraman zuen Jose Mari Larrañaga KIUko zuzendaria Villa Mariara, kooperatiben berri ematera.

Nikasiok senidetu nahiko lituzke Arrasate eta Villa Maria. Hango euskaldunek ondo ikusten dute proposamena, bai eta hiriko alkateak ere. Arrasatekoak laster jasoko du horren berri.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal, **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publikitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubueko. **Asteburuetako berriomailak:** Monika Belastegi. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karrieme Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketan arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubueko.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultur Sallaren laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 3**
- Ruiz, Maala.
- Larunbata, 4**
- Morales, San Andres.
- Igandea, 5**
- Ameza, Santa Marina.
- Astelehena, 6**
- Zabala, Zarugalde.
- Asteartea, 7**
- Ruiz, Maala.
- Asteazkena, 8**
- Morales, San Andres.
- Osteguna, 9**
- Ameza, Santa Marina.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorialdea 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) .. 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: .. 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) .. 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

"ALTO DEBA"REN IZENAZ

Uztailaren 16ko *Arrasate Press* aldizkariaren 3. orrialdean "Iturri Onetik. Deba Garaia, Gorena ala Goiena?" izeneko artikuluxka bat agertzen da. Egia esan, ez dirudi "iturri onetik" edo iturri zuzenetik eginda dagoenik, edo, gutxienez, Euskaltzaindiaz ari denez, artikulugileak ez du kontrastatu behar zuen lekuan, alegia, Euskaltzaindian.

Hasteko, Debarroko "Bajo Deba" deritzan eskualdearen

izena aldatzea, Mankomunitateko lehendakari izan den Luis Alberto Aranberri jaunaren gogo eta adostasun osoz egin zen, besteak beste, bera euskal gaitetan aditua delako. Bazekien zertan ari zen, zeren eta Deba Beherea, ez zen besterik, morroi-itzulpen bat egitea, Euskal Herriaren mendealdean bat ere tradizioz ez duena. Seguru asko, gauza bera egingo zen bere garaian "Alto Deba"rekin. Euskaltzaindiak egin zuena zen, bide batez, "Alto Deba" hasieran deitzen zen Mankomunitateko lehendakariari bere irizpea agertu. Aranberri jaunak horko Mankomunitateko presidentea ezaguna zuela, aditzera emango ziola agindu zigun. Beraz, laguntza bat eskaini zion Euskaltzaindiaren batzordeak.

Izen okerra izatekotaz, *Deba Garaia* izan da, *Gorena*, *Gurena*, *Goiena*, *Guenta* direlako tradizioidunak. Besterik da, eztabaidagarri izan daitekeela zein den egokiena eskualde horretan, hain zuzen esaten baitzen herri horietan komeniko litzatekeela ikerketa bat egitea toponimia nagusian edo gutxian zein den hedatuena ikusteko.

Beraz, Euskaltzaindia irekita dago ikerketa bat egiteko, bultzatzeko edo zuzentzeko edo bigarren irizpen zehatzagoa edo hornituagoa eskaintzeko.

Erantzuna, Euskararen Legearen 10. artikulua irakurriz gero, bertoko administrazioari dagokio, kasu honetan Mankomunitateari, ez udalbatzari, ez foru administrazioari, ez eta autonomia administrazioari. Eta Euskaltzaindia ez da Administrazioa, iritzi emaila baizik. Argi geldi bedi hori.

Besterik ez. izan ongi.

*Jose Luis Lizundia,
Euskaltzaindiko
idazkariorde-
kudeatzailea.*

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Non izan zara oporretan?

Abuztua joan da eta urteko oporraldirik luzeena ere bai.



Maite Agirre
(36 urte)
Irakaslea

Arrasaten, ez naiz inora joan. Lehen ibiliak ginen eta orain hemen.



Ana Mancebo
(38 urte)
Langilea

Quintana de la Serenan izan gara, Extremaduran. Jende ona ezagutu dugu eta ez du bero handirik egin.



Jose Abad
(34 urte)
Langilea

Bizkaiko itsasoan zehar ibili gara. Zumaiaetik Galiziaraino 20 egunean, belaontzi batean, sei lagun.



Marimar Gutierrez
(30 urte)
Langilea

Hemen gelditu naiz, orain-tsu ama izan naiz eta.




Maria Jesus Garmendia
(43 urte)
Tabernaria

Portugalen hamahiru egun egin ditugu. Oso polita da. Jan ere oso ondo egin dugu.



Mikel Otxoa
(31 urte)
Langilea

Andaluzian izan gara hirugarren urtez. Deskantsuan, hondartzan... oso ondo.



Angel Aiani
(59 urte)
Langilea

Donostian hilabete osoa. Ostatu batean lo egin eta eguneroko hondantzara.



Jon Guruzegaga
(7 urte)
Ikaslea

Oraindik ez naiz joan. Iraitlean Saloura goaz gurasoak eta nire bi arrebeekin.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarfeko hotz eta beroak
Arrasate Pasealokua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Sagardotegia

ITURROIETA
Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Ipek Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

3 ostirala

■ ZINEA

Vampiros, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

5 igandea

Los lobos de Washington, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

4 larunbata

■ ZINEA

Los lobos de Washington, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

The hot dogs urretxuarrak eta *Sturborn Daughters* neska talde bermeotarrak izango dira kontzertuan gaztetzean, 22:00etan.

■ ARTZAIN TXAKUR
TXAPELKETA

Arabako Artzain Txakur Txapelketa jokatu da Aramaion. 18:00etan hasita, Iñaki Oregiren oroimenean egiten den 11.a izango da. Aurtun, gainera, Jose Luis Ugari-za eta Aramaioko Abere Elkar-tea ere omenduko dituzte.

6 astelehena

■ ZINEA

Los lobos de Washington, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

7 asteartea

Los lobos de Washington, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ ARRASATE MUSIKAL

Izena emateko epea zabalik dago irailaren 6tik 10era. Musika Eskolako idazkaritzan, 17:00-20:00.

■ SEXUALITATE
BULEGOA

Arrasateko Sexualitate Informazio eta Orientazio bulegoa irailaren 2an zabaldu zuten, ohiko ordutegiarekin. Garibai etxean dagoen Sexualitate Bulegoan, gazte bulegoa dagoen tokian.

Udako oporraldien ondoren, astelehenetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta ostegunetan arratsaldeko 15:30etik 17:30era.

■ MARGO ERAKUSKETA

Julio Galarta margolari arrasatearrak Zarautzen ireki berri du margo erakusketa. Kayua erakusketa aretoan ikusiko dira haren lanak, irailaren 30era bitartean. Irekitze ekitaldia irailaren 4an, larunbatean, izango da, arratsaldeko 19:30ean.

■ JOKIN ZAITEGI

XIII. itzulpen laburren sariketa abiatu du AEDK. Edozeinek har dezake parte eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Lanak 15-30 orri bitartekoak izan beharko dira eta jatorrizko testuak 1996-1999 bitartean idatzitakoak. Itzulpenak urriaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira AEDn.

■ ARGAZKI LEHIAKETA

Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera, "Gazteak eta 2000. urtea" X argazki lehiaketa eratu du. Lanak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da.

■ ZERAMIKA
IKASTAROA

Jabier Mercaderrek bustingintza ikastaroa eskainiko du irailaren 13tik aurrera. Interesatuek irailaren 6an eta 9an eman dezakete izena Leniz Zeramika eskolan, Nafarroa etorbidean, edo 943 79 30 00 zenbakian.

Gazte-eragilea
behar da
Txatxilipurdin



- Kontuan hartuko da:
- Euskara maila
 - Esperientzia gazteekin
 - Ikastaroak
 - Begirale titulua

Curriculumak irailaren 14a baino lehen bidali Txatxilipurdi Elkartera:
Txatxilipurdi Elkartera

Pablo Uranga, 4 behea • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 54 46 • Faxa: 943 79 74 01

... LILURAK ...
OIHALAK

Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

HEZIKETA ZIKLOAK

etorkizunari begira, aukera paregabea

● **ALMEN** ikastola (943 79 49 07)

● GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK

● **IRUDI PERTSONALARI BURUZKO AHOLKULARITZA**

● **ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA**



● **S. VIATOR** ikastola (943 71 24 90)

● INGURUMEN KIMIKA

● INGURUMEN OSASUNA


● **OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA**

● **ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK**



HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA

MATRIKULA EGUNAK: IRAILAK 8,9 ETA 10



USTEAK USTE

Lanera

Udalbatzarrak antolatu ditu batzorde gehienak. Hona nola geratu diren:

- Batzorderik garrantzikoena, aurrekontuei erreparatu gero behintzat, EHk hartu ditu.

- EAJ-EA koalizioan EAK hartu ditu pisu handien dituzten batzordeak. EAJk bi baino ez ditu.

- Bi batzorde sortu dira, Ingurumena batetik eta Lana eta Garapen Ekonomikoa bestetik, inportanteak izan daitezkeenak.

- Emakumeek eragin handiagoa dute udal gobernuan. %40 dira Gobernu Batzordean eta %46 Batzorde Iritzi emaleen lehendakari zetan.

- 28 urte besterik ez ditu eta eskarmentu politikorik ez. Hala ere, Herri Finantzak Utzune Urrizalkiren esku izango dira. Hau izan daiteke EHren izar berria Arrasaten.

- Ez EAJk ezta EAK ere ez dituzte liberatu zerrendaburuak. Jeltza-leek Itsaso Garai gaztea jarri dute lan horretan. EAK, oster, nahiago izan du beterrano bat, "Ametzu".

- PSE-EE izango da oposizio buru, uztailaren 29an erakutsi bezala.

Orain lana egiteko ordua da. Zorte ona denoi!

Joxe Aranzabal



Iruzurra Elgean

* Pedro Lasagabaster

Azken bolada honetan energia eolikoaren gorakadak energia berriztagarrien eztabaida berpiztu du, izan ere, eta adituen arabera, 90. hamarkadan energia eolikoa izan da munduan gehien hazi den energia iturria.

Gure bailaran Elgeako zentrala dugu eztabaidagai, EAEko lehendabiziko zentrala. Zentral honen zati bat Araban egongo bada ere, erdia baino gehiago Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko lurretan egongo da, Mugarriluze eta Usabakotxena bitartean.

Zer gertatzen ari da Elgean? Paraje zoragarri hau orain arte bizi izan duen lasaitasuna galtzen ari dela, zoritxarrez.

Lurjabe gipuzkoarrok guztiz haserre gaude bai Eolicas de Euskadi-rekin eta batez ere Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarekin, auzi honetan jaso dugun tratuagatik.

Diru publikoa erabiliz, Industria Sailak erraztasun guztiak eman dizkio Iberdrolaren filiala den Eolicas de Euskadi-ri, beste batzuei ate-

ak itxiz eta eskaera eta alegazio guztiak muzin eginez.

Hasieratik eskaintza ugari egin zizkiguten: lanen jarraipenerako batzordean parte hartzea, proiektuari buruzko informazio gardena eta bidezko ordainak lurjabeen. Lanak uztailean hasi ziren, baina promesak bete ez.

Dena orain arte bezala badoa, Industria Sailak betiko kenduko digu lurra, Iberdrolaren eskuetan jartzeko.

Mundu zabaleko hainbat zentral eolikotako esperientzien berri izan dugu eta kasu guztietan ez da lurrik desjabetu, alokatu baizik. Eraikuntzek eragiten duten eragina abeltzainek eta nekazari-

riek jasaten dute, baina bidezko ordainak jasoz. Administrazioak inon ez du espropiazioaren bidetik jotzen. Zergatik egin behar digute hau EAEn?

Gure aldetik, nahiago dugu zentrala ez egitea, bazter horiek maite ditugulako, baina egitekotan, modu zuzenean egin dezatela eskatzen dugu. Parajeak dituen balore guztiak kontuan harturik, jarraipenerako batzordeak lanen kontrol zorrotza egin beharko luke (orain arteko lanak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Deklarazioa kontuan hartu barik egin dira, izadia- eta arkeologia-ondarearen gainetik pasatuz). Baina horretarako batzordea abiatu egin behar... EAEn egingo den lehenengo zentral eolikoa izanik, Elgeako zentrala eredu izan daiteke, onerako eta txarrerako. Beraz, argi ibili beste herrietako jendea ere.

Bukatze, galdera batzuk egin nahi nituzke: zergatik egin behar dute Elgeako zentrala EAEko Plan Eolikoa onartu aurretik?.

Zergatik ematen diete betikoei lehentasuna? Zergatik ez dute jartzen zentral eolikoaren kudeaketa administrazio lokal eta lurjabeen eskuetan, Danimarkan, esate baterako, egiten den bezala?

*Nekazaria

“**Lurra betiko kenduko digute. Gainera, Iberdrola bezalako enpresa baten eskuetan jartzeko**”

UGARTE
 Industria hornidurak
 Arrasate pasealekua
 Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
 Faxa: 943-793412

IRATI TABERNA
 Ferrerías kalea • Tel.: 943 79 56 11
 ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Zerrajerako etxeak**

Mondragoetar askok abuztua aprobetxatu dute izena emateko Zerrajeran egingo diren babes ofizialeko etxeetan. Horietako askok Kutxaren bulegoetara joan dira egin beharreko urratsak egitera. Denek izena eman beharra dute Eusko Jaurlaritzak sortu duen Etxebide erakundean, honek kudeatzen baitu babes ofizialeko etxeak norentzat izan behar diren.

Eskatzaileek 902 42 44 44 telefonora deitu behar dute eta etxea erosi nahi dutela adierazi. Etxebidek paper batzuk bidaliko dizkie, bete ditzaten. Paper

horiek Kutxan uzten dira eta hau arduratzen da informazioa Gasteizera bidaltzen. Ondoren, Etxebide harremanetan jarriko da eskatzaile bakoitzarekin.

Zerrajeraren lurretan 312 etxe egingo dira. 92 babes ofizialekoak eta 220 beste-lakoak.

■ **Antoñako saihebidia**

Abuztuaren hasieran hasi ziren Antoñako saihebidia egiteko lanak. Dena ondo badoa, otsailean amaituko dira. Bide hau egingo da kiroldegia Mojategiraino zabaldu ahal izateko eta, aldi berean, alde horretako base-

rritarrek bide bat izan dezaten kalera etortzeko. Izan ere, kiroldegia zabaltzearekin batera, desagertu egingo da oraingo bidea, San Isidro elizatik abiatzen dena.

Saihebidia Antoña baserria zegoen tokitik abiatuko da, kiroldegiko pilotalekuen ingurutik, eta institutuaren ostetik, Santa Teresa auzoraino joango da. Hori izango da Antontxebarri, Saburdi eta Arbeko baserri-tarren, besteak beste, erabiliko duten bidea.

Guztira 50 milioi kostako da baserri bide berria. Construcciones Galdiano Donostiakoak egiten ari da.

■ **Baserritarrak haserre**

Abuztuaren 5ean, Elgeako zentral eolikoa kokatuko den lurren jabeek prentsaurrea eman zuten Donostian. Aretxabaletako, Oñatiko eta Eskoriatzako 24 baserritarrek zentral eolikoa egiteko lurra desjabetzeko erabili duten bidea salatu nahi izan zuten. Euskal Energia Erakundeak (EEE) metro koadroa 2,30 eta 5 pezeta artean erostea proposatu omen die.



Espainiako iparraldeko euskaldunek independentzia lortuko balute, berehala eskatuko lukete Europako Batasuneko kide izatea, euroa hartuko lukete dirutzat eta irekita izango lituzkete Espainiako eta Frantziako mugak. Ezer gutxi aldatuko litzateke. Euskara ere, Francisco Francoren garaian hiltzorian egon eta gero, pizten ari da berriro.

— Kontua da Espainiak ez diela utziko joaten. Utziz gero, dio Espainiako Gobernuak, katalanek eta gailegoek ere alde egin nahi izango dute”.

STEPHEN BAKER

BusinessWeek
1999.8.23

Euskarazko komunikabide batek

SALTZAILEA

behar du PUBLIZITATE SALMENTAN aritzeko DEBA GARAIAN.

- **Eskainiko da:**
- Lan kontratua
 - Oinarritzako soldata + komisioa.

- **Kontuan hartuko da:**
- Eskarmentua antzeko lanetan.
 - Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia.
 - Eskualdean bizitzea.

Ezinbestekoa autoa izatea.

Interesatuok deitu 943 30 02 22 telefonora irailaren 14a baino lehen.



Alkoholarekin arazoak dauzkazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholzale Anonimoak

3. eremuko Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



Eratu dira batzordeak

Ia hilabete negoziatzen ibili ostean, Lizarra-Garaziko hitzarmena izenpetu zuten Arrasateko alderdiak ados jarri ziren batzordeak osatzeko. Uztailaren 29an egin zen osoko bilkurak onartu egin zituen EHk, EAJ-EAk eta EBk eramandako proposamena.

Aurreko agintealdian baino batzorde iritzi emaile bi gehiago egongo dira. EHk zazpi izango ditu bere arduraean; EAK hiru; EAJk bi eta EBk bat. Laster jakingo da zer beste zinegotzik osatuko duten batzorde bakoitza.

Gobernu Batzordea



Xabier Zubizarreta
EH / Alkatea



Ino Galparsoro
EH / 1. alkateordea



Itsaso Garai
EAJ / 2. alkateordea



J. M. Urizar "Ametzu"
EA / 3. alkateordea



Joseba Ugalde
Ezker Batua

Batzorde Iritzi emaileak

13 izango dira, lehen baino bi gehiago: Lana eta Garapen Ekonomikoa batetik eta Ingurumena bestetik.



Xabier Zubizarreta
EH / Hirigintza



Ino Galparsoro
EH / Pertsonala



Uztune Urrizalki
EH / Herri Finantzak



Jose Ramon Arkauz
EH / Kultura eta Kirola



Larraitx Trojaola
EH / Gazteria



Juan Luis Arexolaleiba
EH / Euskara




Uztune Urrizalki
EH / Emakumea



Jose Mari Urizar
EA / Zerbitzuak



Amaia Larrañaga
EA / Ongizatea



Jose Antonio Barriocanal
EA / Hezkuntza



Jose Mari Loiti
EAJ / Lana



Mari Angeles Iñurritegi
EAJ / Auzoak



Joseba Ugalde
EB / Ingurumena



Haritz Azkarraga
EH / Aukea



Amaia Larrañaga
EA / Iturbide Egoitza

Udal ordezkariak erakundeetan

- **Deba Garaiko Mankomunitatea:** Xabier Zubizarreta (EH), Ino Galparsoro (EH), Jose Mari Loiti (EAJ), Jose Mari Urizar "Ametzu" (EA).
- **Ur Partzuergoa:** Xabier Zubizarreta (EH).
- **Mendi Nekazaritza:** Mari Angeles Iñurritegi (EAJ).
- **CEI-Saiolan:** Jose Mari Loiti (EAJ).
- **Arrasate Musikal:** J. R. Arkauz (EH) eta J. Antonio Barriocanal (EA).

Erakunde autonomoak

- **EUDIMA:** Larraitx Trojaola (EH).
- **ICTE:** Amaia Larrañaga (EA).
- **Euskal Fondoa:** Joseba Ugalde.
- **Aretxabaletako Industrialdea:** Jose Mari Loiti eta X. Zubizarreta.
- **Suradesa:** Jose Mari Loiti eta Xabier Zubizarreta.



Eskolarako hamabostaldia

**Aprobetxatu
azken
aukerak**




**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • ARRASATE

IRABAZLEA

Bizikleta hau hain pozik heltzen duen neska, Hiart Aginagalde aretxabaletarra dugu: berak irabazi zuen Arrasate Pressek eta Lizarralde Kirolak-ek Tourraren inguruan eratu zuten lehiaketa. Aretxabaletatik Arrasatera lanera joateko erabiltzen du, batez ere. Zorionak!




EDERRETAN EDERRENA

Abuztuaren hasieran Jorge Fernandez arrasatearra Euskal Herriko mutil guztien artean ederrena aukeratu zuten: Mister Euskadi. Ez da gauza makala, aizue! Izendapen honekin, bere edertasuna gorai patzeaz gain, etorkizuna larrosa kolorez jarri zaio. Laster ETB2ko telesail batean ikusiko dugu: "El Señorío de Larrea"-n. Zorionak!

AMATXO!

Kostata, baina azkenean Arane Zubia ausartu da mundu honetara etortzen. Abuztuaren 24an jaio zen eta ikusten duzue, goxogoxo dabil orain amaren besoetan. Agurtzane Gaintzarain, ama, ARKoko kudeatzailea dugu. Zorionak, Agur, lankide guztion partetik!



GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

ARAOTZ Merenderua
Ingurune zoragarrian
lagun artean
ondo pasatzeko aukera
Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26



TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Iokin Zaitegi, euskaltzale handia



Zaitegi —jarrita, erdian— lehen meza esan zuen egunean, Marneffen. Bere eskuinean Juan Mari anai. Zutik, betaurrekoekin, Luis Arrieta mondragoetarra.

Iokin Zaitegi irakur daiteke Arrasateko plaza bati izena ematen dion plakan. Uribarriko ikastolari ere horrela deitzen diote. Euskaltzale porrokatu baten itzala dira. Due-la pare bat hamarkada utzi gintuen, baina bere izenak argi egiten du oraindik euskararen magalean.

1 906ko uztailaren 26an munduratu zen Iokin Zaitegi, "Txomin Txiki" izenez ezaguna zen Erdiko kaleko 17. atartearen. Juan Zaitegi eta Francisca Plazaolaren semea, lau anaiaren artean hirugarrena zen. Gurasoak mondragoetarrak zituen. Aita

serrailaria zuen, eta "Union Cerrajera"n egiten zuen lan. Honek Bizkaiko "Ixurtza" herrikoa zuen aitona, eta hori dela eta, Arrasateko Zaitegi sendia ezaguna zen "Ixurtzatarrek" edo "Ixurtzenak" ezizenezkin ere. Ama, berriz, etxe-koandrea zen, eta kristau amorratua.

DURANGON JOSULAGUN

Lehenengo eskola urteak "Txortena" legez ezaguna zen herriko eskolan egin zituen Iokinek. Udaletxeko areto batean zegoen, eta izena Elias Aspiazu irakasle zenaren base-rritik zetorkion.

14 urte eskas zituela, Durangoko Josulagundian sar-



Iokin, Elias Azpiazu eta Patxi Urrutia bere lehenengo irakasleekin.

tu zen. Mondragoera maiz etortzen zen komentu hartatik aita Basabe josulaguna, herriko zenbait gazterekin gogojardunetan parte hartze- ra. Amak, erlijiozale amorratua izan arren, ez zuen begi onez ikusi Iokinen asmoa, mojak eta fraideak diru bila etorri ohi zirela pentsatzen zuen eta. Eragozpenak eragozpen, 1920ko uztaillean Durangon zen jada. Aita Bitor Iriarte izan zuen irakasle hantxe, eta latina eta greziera ikasi zituen, batez ere, haren eskutik.

DURANGOTIK LOIOLARA

1921eko uztailaren 27an, berriz, Loiolara abiatu zen Iokin. Nobiziadoko urteetan Tolosako Aita Martin Gar-

mendia izan zuen arduradun. Bost urte eman zituen guztira Loiolan Zaitetik, eta Erroma eta Greziako klasikoak, oratoria, Espainiako eta munduko literatura... ikasi zituen. Loiolan ezagutu zuen gerora adiskiderik handiena eta euskararen aldeko hainbat asmotan alboan izango zuen Andima Ibiñagabeitia ere. Barreanean zeraman euskararen hazia ere Loiolan zegoela hasi zitzaion ernetzen Iokini. Horrela adierazi zuen bere ikaskide Aita Placido Mujikak: "euskaltzale sutsu 1924tik aurrera agertu zan. Langile porrokatua zan eta euskerarekin maitemindua".

Olerkirako zaletasuna ere Loiolan piztu zitzaion. Loiolako gazteek bazuten aldizkari bat *Deya* izenekoa, eta han

IOKIN, EUSKALTZALEEN IKUSPUNTUTIK

Joanmari Torrealdai: "Zaitegi euskaltzale amorratua izan da, bere izerdia eta dirua euskal gauzetan eman dituen".

Martin Ugalde: "Zaitegi, poeta guztiak bezala, ameslari bat zen, baina amets bakarrekoa: euskara".

Telesforo Monzon: "Konpainia oneko gizona zen, lagun bezala oso ona. Sufritu egiten zuen Euskal Herrian euskararik ez entzutean".

Piarres Lafitte: "Langile suharra izan da, bere euskara sakonki ikertu zuena, hitz bakanen ondotik zebilena, erakutsi nahiz gure mintzairaren oparotasuna".

Justo Garate: "Borondate handiko idazlea eta bihotz zabalakoa, ezaugarriak nabarmenena ia bakardadean lanean aritzea delarik".

argitaratu zuen "Donokiko Ama" bere lehenengo poesia, 1926ko azaroan. "Doctor in Filosofia" zen hiru urteren buruan, eta Arrasateko etxe-ko atartearen ere Ph. D hizkiak irakur zitezkeen: "Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin Ph. D".

Oñan ez zituzten begi onez ikusten euskal giroan mugitzen ziren gazteak, eta 1929an sakabanatu egin zituzten. Iokini Venezuelako Meridara joatea egokitu zitzaion. 23 urte zituen eta ikastetxe behartsu batean eskolak emanez izugarrizko sona lortu zuen.

TEOLOGIA IKASTEN

1932an Teologia ikasten hasi zen Belgikako Marneffen. Handik bidali zuen 1934an Zarautzko Olerti Eguneko lehiaketara "Tori nire edontzia" poesia, lehen saria eman ziona. Artzainek erabiltzen zuten ezepezko goporraren inguruko gogoetak ziren.

Marneffen esan zuen lehen meza Iokinek, 1935eko uztaillean, josulagun oso bihurtzean. Urtebete geroago Morialmera (Belgika) joan zen, teologia ikasketak bukatu ondoren. 1937an San Salvadorko "San Jose de la Montaña"

apaizgaitegira bidali zuen lagundiak, eta zazpi urtean izan zen han. Hango liburutegiaz baliatuz, "Bidalien Eginak" izkiriatu zuen, 1955ean argitaratu zena.

LAGUNDIA UTZI

Gorago zituenekiko ezadostasunek lagundia uztera eraman zuten 1944an, eta Guatemala-



Iokin, bere ama Frantziska eta Nemesio Eragunekin.

ra joan zen, San Carlosko Uni-
bertsitatean eta Ameriketako
Institutuan eskolak ematera.
1951n bere ikastetxea ireki
zuen, "Landibar", eta baita
erresidentzia ere. Sei urtean ari-
tu zen han irakasten. Bere lize-
oan sortu zen "Centro Vasco"
elkartea ere, Guatemalako eus-
kaldunen elkartokia.

1945ean Longfellowen
"Ebangelina" lana plazaratu
zuen eta urtebeteren bueltan
"Goldaketan" eta "Sopoke-
len Antzerkiak" argitaratzeko
Mexikora joan zen. "Golda-
ketan" liburuan berak idatzi
nahiz euskaratutako olerkiak
jaso zituen. "Sopokelen

Antzerkiak" lanean, aldiz,
Greziako idazlearen hainbat
antzezlan azaltzen ziren.

EUZKO GOGOIA

1950ean sortu zuen Iokinek
"Euzko Gogoia" euskarazko
aldizkaria, Guatemalan. Ioki-
nek euskara zuen helburu,
baina arazo ekonomikoak
zirela bide, zailtasun ugari
izan zuen aldizkaria aurrera
ateratzeko.

Dena dela, "Euskal Kul-
turaren Alde" batzordearen
lehendakari izateko ere bazuen
astirik Iokinek, eta Miarriz-
ko bere etxea euskal idazle eta



Josemari Velez de Mendizabal.

NOR DA IOKIN ZAITEGI?

Iokin Euskal Herriak eman
duen euskaltzalerik han-
dienetakoa izan da. Koldo
Mitxelenak esan zuen beza-
la, Zaitegik euskararen alde
bizitza ezezik altxor mate-

riala ere eman zuen, diru-
tza ikaragarria xahutu bai-
tuzuen euskararen alde.

Euskal literaturari bi
arlotatik dimentsio berezia
eman dio: literatura egile
bezala, poesia eta prosa idat-
tzi zituen. Bestalde, itzul-
tzaile gisa ere lan handia
egin zuen, batez ere Gre-
ziako klasikoak itzultzen.
Literatura eragile bezala,
berri, "Euzko Gogoia" aldiz-
kariaren bitartez gerra aurre-
ko eta osteko belaunaldien
zubia egin zuen, gerrak hau-
tsitako katea berri ere
lotuz.

Nik uste dut Zaitegiri
Euskal Herri osoak zor dio-
la oraindik egin ez zaion
omenezko keinua, behar
bezala saritu gabe baitugu
berak egindako lan guztia.

Neguan Lore

Iokin Zaitegi, 1958

*Nork sorterazten zaitu,
bertso-berri labur?*

*Olerkari zar onek barnean
izotza...*

*Agertu zeraneko, negu-lili,
elur*

*aritean argitu zait erabat
biotza.*

(...)

*Nere bizitzarteko uda-min
beroa*

*al duzu ermerazle guri eta
bizkor?*

*Detorquen udaberri garden ta
eroa*

*aditzera ematen al didazu
baikor?*

(...)



aguna alboan dituela, bazkari batean.

jakintsuen topaleku izaten zen.

1962an Ameriketako
Zacatepequez departamentu-
ko San Antonio Aguas Calien-
tes herrira joan zen, eta han-
dik San Martin Jilotepequera.
Saso hartan argitaratu zuen
"Berriz ere goldaketan" bere
bigarren poesia liburua.

"HERRIKO SEMEA"

66 urte zituela, Arrasatera
itzuli zen berriro, 1972an.
Handik gutxira hil zitzaion
ama, eta berak ere osasuna
ahultzen hasia zuen. Horre-
gatik Mondragoeko zentro
asistentzialera eraman zuten
1976an. Urte berean, aben-
duaren 19an, Herriko Oho-
rezko Semea izendatu zuen
Arrasatek, euskal kulturaren
alde egin zuen lanarengatik.
Omenaldiaren asmoa jakina-
razi ziotenean hauxe izan zen
Iokinen erantzuna: "omenal-
dirik onena ikurriña balkoian
eta euskara udaletxean". Ordu-
rako bihotzak susto bat baino

gehiago eman ziola eta, Oña-
tiko San Martin egoitzako
mojek zaintzen zuten. Oñati-
ra joateko baldintza bakarra
jarri zuen Iokinek: bere gela-
tik Udaltax ikusteko aukera
izatea.

Euskaltzaindiak ere sari-
tu nahi izan zuen Zaitegik
euskararekiko erakutsitako
begirunea, eta 1977an Oho-
rezko Euskaltzain izendatu
zuten (euskaltzain urgazle
1951etik zen).

1979ko apirilean etxea
erre zitzaion. Kolpe latza izan
zen beretzat. Gaixo egon
arren, Platonen bosgarren
liburukia bukatu nahi zuen.
Ezin izan zuen asmo hori
bete, ordea, 1979ko abuz-
tuaren 17an hil baitzen
Donostiako ospitalean. ■

*(Informazio iturria:
"Iokin Zaitegi". Jose Mari
Velez de Mendizabalek idatzia
eta 1981ean argitaratua.)*

Maidar Osa

JOSE MARI LARRAÑAGA (KUI-KO ZUZENDARIA)

“Euskara beharrezko

Kooperatiba Unibertsitate Institutua (KUI) aurreneko pausuak ematen ari da Mondragoen. Jose Mari Larrañagak zuzentzen du eta berekin izan gara lanaz eta bere bizimoduari buruz berbetan.

— Zer da KUI? Zein helburu ditu?

— Mondragon Unibertsitatea (MU) kooperatiba unibertsitate izanik, pentsatu genuen horrelako institutu bat sortzea garrantzitsua zela gure baloreak zeintzuk diren jakiteko eta zabaltzeko. Nor-tasuna galduz gero, gorputz bat handia eta ona izan daiteke, baina arimarik bakoia. Balore hauek sakontzea eta zabaltzea komeni da. Horretarako urte bukaera aurretik taldetxo batek KUIren lana zein den erabakiko du. Jabier Retegi da, MUko errektorea, honen bultzatzaile nagusia.

Momentuz berak, Jon Sarasuak eta neuk osatzen dugu taldea.

— Euskarak zer leku du KUIin?

— Euskararik barik kooperatibismoa ezin daiteke ulertu. Gaztelania, frantsesa, ingelesa... oso garrantzitsuak dira beste herriekin komunikatzeko. Baina gure artean komunikatzeko orduan, euskara da erabili beharreko tresna; kulturari dagokionez, tresnarik garrantzitsuena. Gure zen-truek eta gureak ez direnek, udalak eta beste hainbestek sustrai moduan esateko molde bat eduki behar dugu eta hori, gure kasuan, euskalduna da. Euskara galduz gero, kooperatibismoa egiteko halako modu berezi bat galduko genuke.

— MUko ordezkari izendatu zaituzte Kooperatiben

Kontseilu Gorenean. Zer da kontseilu hori?


— Euskal Herrian kooperatiben mugimenduak garrantzi handia hartu du urteen buruan. Mugimendu honek, Kontseilu Goren bat du kooperatiben lanak, baloreak eta enparauak lantzeko.

Kontseiluaren barruan, hainbat talde daude eta ni horietako baten buru naiz: kooperatibismoaren baloreak sustatzen eta erakusten dituen taldearen buru.

— Sasoi batean TU-Lankide aldizkariko zuzendaria ere izan zinen. Urte h a i e i buruz

zer gogoratzen duzu?

— Aurkikuntza ederra eta pozgarria izan zen hura, asko ikasi nuen. Zuon, kazetarion mundu horretara hurbildu nintzen, hainbeste



“On Joxe Mariaren iritziz, bai ekonomia eta bai teknologia pertsonen onerako izan behar dira”

dugu kooperatibetan”

kritikatzen den mundu horretara. Hau agian egia izango da kazetaritzako beste arlo batzuetan. baina nire ustez, Arrasateko kazetaria, herrian lan egiten duena, zintzoa da.

TU-Lankide On Jose Maria Arizmendiarririk sortu zuen eta haren maisutasunari eustea gaitza da. Hala ere, ustedut haren arrastoa bizirik dagoela. Nire ustez TU-Lankidek lan polita egiten du.

— Zerk erakarrita etortzen da jendea kanpotik kooperatiba sistema ikustera?

— Kooperatibismoak

erantzun zuzenak ematen ditu oraingo bizimoduaren hainbat ataletan. On Joxe Mariak garbi ikusi zuen ekonomia garrantzitsua dela, teknologia ere bai, baina baita gizakien arteko giroa ere. Ez zuen gutxietsi ez dirua eta ezta teknologia ere, baina beste konpromiso bat hartu zuen: bai ekonomia eta bai teknologia, pertsonen onerako izan behar direla. Horrek erakarrita batez ere etortzen da kanpoko jendea.

— Nondik datoz bisitari gehienak?

— Hegoameriketarik, Venezuela, Txile, Argentina. Gero EEBBetatik. Europatik, berriz, Ingalaterra, Alemania eta Norvegia aipatuko nituzke batez ere.

— Badakigu maratoizalea zarela. Elgoibarko Mugerza lasterketa ez omen da hasten zu iritsi arte. Nolatan?

— Orain urte asko, ebakuntza larri bat izan nuen eta ondorioz, sendagileak kirola egiteko gomendatu zidan. Mendingo ibiltzen hasi nintzen eta geroago arineketa egiten. Maratoietan parte hartzen hasi,

epaile titulua atera eta Elgoibarko lasterketan epaile moduan parte hartzen hasi nintzen. Haraino joateko, entrenamentu gisa, arineketa joan nintzen behin eta hain bitxia iruditu zitzaizen...

— Sevillako mundialak jarraitu dituzu?

— Esan beharra dut nik Abel Antoni halako gorrotoa niola, Grezian Martin Fizi irabazi zion moduagatik. Hala ere, kirolari ezinhobea dela erakutsi du oraingoan eta nire txaloa behintzat irabazi du. Dena dela, niretzat Martin Fiz hobea da.

Loramendi kirolak

%30

- Prakak
- Sudaderak
- Nikiak eta abar

BEHERAPENAK!

Zapatilak

%20

%50

Umeen arropak

Futboleko eta mendiko boten eskaintzak!!

San Andresen eta Garibain

Arrasate futbol Saria jokoan Atxabalpen



Arrasate Sariak asteartean izango du jarraipena.

Arrasate Saria futbol txapelketako lehenengo norgehiagoka jokatu zen asteazkenean Atxabalpen. UDA, Bergara eta Mondra taldeek jokatzen duten lehiaketako lehenengo partida, Uda eta Ber-

gararen artean jokatu zen.

Iazko preferente mailako liderrak, bergararrak, izan ziren nagusi. 1 eta 3 irabazi zieten Zeziagaren mutilei. Bergararrenak izan ziren gol aukerarik gehienak. Partidako lau

golak bigarren zatian etorri ziren. Lehenengo Gorka Dueñas arrasatearrak lortu zuen. Oxel Apraiz arrasatearra ere zelairatu zuen bergararren entrenatzaile berriak, Jose Mari Biain zumarraga-

rrak. Asteazkenekoa aurre-denboraldietan jokatzen den horietakoa izan zen: aukeragutxi, joko eskasa eta aldaketa ugari. Osterantzean, jende gutxi hurbildu zen Atxabalpera.

Mondrak irailaren 7an eta 9an izango ditu norgehiagokak. Juanina Garaik aurreko denboraldia amaitu baino lehen hartu zuen taldearen ardura, asteartean UDAREN aukera eta ostegunean Bergararen kontra jokatu beharko du, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

LEGAZPI SARIA

Asteburu honetan Legazpira abiatuko da Mondra. Ilintxa, Elgoibar eta Urola futbol taldeekin batera, Legazpi saria jokatuko dute. Larunbatean egiten dutenaren arabera, finala izan dezakete jokatu beharrra, igandean.

Ikastaroak

Irailan zehar hainbat ikastaro antolatu ditu Deba Garaiako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak.

Golf ikastaroa irailaren 18an hasiko da eta lau egunetan (irailaren 18, 19, 25 eta 26an) Musakolako kiroldegian emango da. Urriaren Lagraneko (Araba) golf zelaian segituko du, urriaren 2an eta 3an. *Handicap* ateratzekoa, urriaren 16an eta 23an izango da, Urturin (Araba). Izena emateko 943 77 16 77ra deitu lehenbailehen.

Arku tiraketa ikastaroa irailaren 25ean eta urriaren 2, 16, 23 eta 30ean izango da. Ikastaro hau Bergarako Zabalotegiko pilotalekuan izango da. Izena eman Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

Saskibaloia entrenatzaile berria

Joan den astearte arratsaldetik ari da senior mailako saskibaloia taldea entrenatzen, "mister" berriekin. Iaz Danel Aiastui eta Jon Basurko taldeko jokalariek aritu ziren taldea zuzentzen, baina entrenatzaile berriak adierazi zigunez, "hori ez zen modurik egokiena, nahiz eta hasieran gauzak ondo joan zitzaizkien".

Hori dela eta, Lander Errastik, garai batean Arrasateko taldeko jokalaria, taldea bere kargu hartzea erabaki du. 31 urte ditu eta bera izango da, beraz, denboraldi honetan talde nagusiaz arduratuko dena.

Lehen ere ibili izan da entrenatzaile lanetan. Gazte eta haur mailako neska-mutikoekin izan zen hori. Aurten, ordea, senior mailakoak entrenatuko ditu. Berak adierazi zigunez, taldean 10-11 bat lagun dira. "Taldea txikia agian, baina badut esperantzarik".

Jokalariek berriak ere arituko dira taldean. Junior mailatik igotako bi gazte eta garai batean Askatuak eta Maltzaga-Urbina taldean aritu zen Alvaro Coca.

Aurten ere hirugarren mailan arituko da Kenciarra, Arrasate, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako taldeekin batera.

Lasterketa Gatzagan

Igandean izango dute Born Jay taldeko txirrindulariek Gatzagako lasterketa, afizionatu mailan. Bezperan, Ataunera abiatuko dira. Igandekoa goizeko 09:30ean hasiko da.

Profesionalen partidak

Odrizola eta Arroio III pilotari profesionalak emango diote hasiera Gatzagako pilota txapelketari. Larunbatean, 17:00etatik aurrera, eta lau eta erdiaren barruan arituko dira. Ondoren, binakako partida bat jokatuko da. Aurrez aurre, Zabala eta Alonso eta Legorburu eta Oregi I arituko dira.

AMAIA AXPE (LORE JOKOEN ANTOLATZAILEETAKOA))

“1899an egin ziren lehen aldiz Aramaion Lore Jokoak”

Amaia Axpek irakaskuntza arloan igaro ditu hainbat urte. Orain hizkuntza normalizatzaile bezala dihardu lanean, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Aramaio Udaleko zinegotzi, Euskara eta Hezkuntza batzordeburua ere bada, eta Kultura batzordeko kidea ere bai. Berak eman digu Aramaion irailean egingo diren Lore Jokoen berri.

— Zer dira Lore Jokoak?

— Gaur egun “euskal jaiak” bezala ezagutzen dira Lore Jokoen antzerako ekintzak. Antoine D’Abbadiek sortu zituen, poesia bultzatzeko. Gero euskal mugimendu kultural, ideologiko, ... bihurtu ziren, eta Euskal Herriko zazpi probintzietara euskal ohiturak eta beste herri adierazpenak hedatzeko asmoa zuten.

— Nondik dator izen hori?

— Frantziako Britainian egiten ziren poesia lehiaketa batzuk, saritzat lore bat zutenak. Antza denez, Frantzian Erdi Aroan Flora landareen jainkosa omen zen, eta jaiegun hori ospatzeko poesiak egiten ziren. Antoine D’Abbadiek hortik hartu zuen izena.

— Zergatik erabaki duzue Lore Jokoak antolatzea?

— Orain dela 100 urte egin ziren Aramaion Lore Jokoak lehen aldiz, Abbadien alargunak bultzatuta. Bere dirutik ordaindu zituen “Zazpirak bat”



leloarekin sortutako gastu eta sariak. Arabako herri bakarra izan zen, gainera, Aramaio, Lore Jokoak eratu zituena. Urteurren hori dela eta erabaki dugu irailean Lore Jokoak egitea.

— Zein ekitaldi antolatu dituzue?

— Orain ehun urteko Lore Jokoak hartu ditugu eredu gisa. Ahal den neurrian, atxiki egin ditugu ekintzak. Zapatu honetan Arabako Arditxakur Txapelketa izango da, Salasango zelaian. Bestalde, poesiak orain ehun urte garrantzia handia zuen, eta hori dela eta, “Poesiaren alde, poesiaren kontra” errezitaldia antolatu dugu.

Gainera, hau izango da Deba Bailaran eskainiko duten aurrengo emankizuna. Irailaren 11n Txistulari Eguna izango da, eta hurrengo asteburuan, berriz, Euskal Herriko Bertsolari Eskolen bilkura egingo da. Irailaren 18an bertso saioa izango da pilotalekuan, eta gaueko 24:00etan, bertso zahar eta berrien kantaldi-karaokea gitarraz lagunduta, Iturrieta sagardotegian. Urriaren 2an, azkenik, lehenengo mailako pilota partida profesionala izango da, Lore Jokoei bukaera emateko.


— Nolako harrera espero duzue?

— Saiatu gara informazioa ematen. Badira ekintza batzuk itxiak direnak, Euskaltzaindiak egingo dituen jardunaldiak esate baterako. Baina, beste ekintzek harrera ona izango dutela espero dugu. Irailaren 26a, adibidez, oso egun aproposa da jendeak ekintzetan parte har dezan. Herri bazkaria dago, eta 500 bat pertsona espero ditugu.

— Ekitaldiak iraila osoan izango dira. Zer dela eta luzatu zarete horrenbeste?

— Garrantzia eman nahi izan diegu Lore Jokoei, eta asteburu batean eginez gero ez lukete horrelako oihartzunik izango. Lore jokoan mendeurrena irailaren 9an eta 10ean da berez, baina egun horietan bakarrik eginda nahiko hankamotz gelditzen zen.

“Lore jokoak euskal mugimendu kultural eta ideologiko bihurtu ziren”



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 77 00 29. Eguerdian edo gauean.

• Lau gelako etxebizitza alokagai Arrasaten. Tel.: 607 84 86 73. 21:00.

• Altzariak dituen teilatupe handia alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 04 86.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bila nabil, Arrasaten, lanean ari den jendearekin bizitzeko. Tel.: 943 81 28 18.

• Bi pertsonarentzako etxebizitza behar da. Tel.: 943 21 66 55. Larraitz.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 13 20.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

14. Errentan emateko

• Restaurant bat alokatzen da Arrasate erdian. Interesatuok deitu 943 79 12 93 telefonora.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

alokagai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

LANA

18. Eskaerak

• Umeak zaintzeko esperientziadun andre euskalduna behar dut, arratsaldez lan egiteko. Tel.: 943 79 19 83.

• 30 urtetik gorako emakumea behar dut pertsona heldua zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Neska euskaduna behar da umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 23 44.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• 1. eta 2. hezkuntzarako eskola

partikularrak emango nituzke euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Akademia batek OHO, ESO eta DBH-ko eskola partikularrak ematen ditu. Dei egin: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• R11 bat salgai, egoera onean. ITVa pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 95.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Opel Kadet Van diesela salgai. Egoera onean, ITVa pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 245.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Kawasaki GPZ/400 salgai. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

DENETARIK

31. Galdu


• Uztailaren 22an, Udala enparantza aldean, agenda elektronikoko bat, datu pilo batekin galdu nuen. Aurkitu baduzu, dei iezadazu mesedez 943 79 27 09 telefonora.

• Betaurreko graduatuak galdu nituen abuztuan. Granate kolorekoak dira eta zorro beltz batean gordeta neuzkan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 93 63 telefonora. Isabel, eguerdian.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Etxaburu eta Irar-
mendi behealdean atera zen
argazki hau orain berrogei-
ta hamar urte, Bedoñatik behe-
rako bidean, Solozar baino
lehenago, hain zuzen ere.

Lagun taldekoak honakoak dira: harri gainean Toledo-ko katedraleko organo jotzaille nagusia dago, On Felix Saez de Iñarra. Ondoan Pedro Zumelaga du. David Arzamendi da hurrengoa eta honen ondoan Fortunato Bedia. Erdian dagoena, berriz, Joxe Lasa.

Hurrengoko laurak, bestalde, Leandro Ibañez de Opakua, Agustin Azkoaga, Roke Garai eta Ignacio Saez de Etxarri dira.

Egun horretan meza kantatzera joan ziren Larrinagara eta bueltan, Bedoñako arotik behera zihoazela, ikusten duzuen harri horren gainean atsedean hartzen geratu ziren. Harri horrek zubi bat egiten zuen, behetik zihoan erreka-stoa igaro ahal izateko. Atzean, berriz, Udalatxeko sekulako ikuspegi polita.

*Argazkia eta
berriematea:
Zumelaga*

IRAILAREN 6tik AURRERA, BERRIZ ERE ZUEKIN

“Urtebetez ekintza berri ugari ekarri ondoren, zerbitzurik onenak eskaintzeko asmoarekin segitzen dugu. Gainera, zatoz jakitera bazkide izateagatik **Estetika Zentruan** izango dituzun onurak”.



**OSASUNA, EDERTASUNA eta
PLAZERRA ZURE ESKU**

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17



HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !

**Matrikula
Epea Zabalik**

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.



AHIZKE S. COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http:www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaiby@cim-idiomas.com
Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPUZKOA)
Tel.: 639 71 98 58
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http:www.cim-idiomas.com



ELGETA


Eraikuntzaren 2. aldiari
ekingo diogu laster

- ▶ Etxebizitza zoragarriak
- ▶ Lokalak
- ▶ Garajeak

Informazioa

943 76 11 23

U.T.E. URIBURU



Kokapen ezin hobea
Ikuspegi bikainak

Construcciones Mauricio Arregui S.A.

Construcciones Sukia S.A.

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxes: 943 79 23 51

ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxes: 943 77 04 55

ARETXABALETA